

## **EUSKARAREN HEGALDIA**

Miren Estibaliz Vivanco Ramírez, 16 urte

*Bilbo*

“Hizkuntza bat itzalaren antzekoa da.

Ukabila altxatuz gero  
hark ere altxatu egingo du.

Ihesi bazoaz, hark ere  
zure atzetik egingo du ihes.”

Kirmen Uribe

Ortziak bere lehen eguzki izpia  
erakunsten duenean jaio eta  
gaueko xarmaren itzalpean  
ostentzen diren berbak  
hodeien artetik hegaka  
daramatzazun hegazti hori:  
nondik zatoz hain goibeldurik?

– Eraildako mintzoen paradisu ospeletik.

Iluntasunaren kaiola gupidagabearen  
atzaparretan preso egotearen zioa  
ulertzea baino beste desirarik  
ez duzun hegaztiño hori:  
zer ari zara bilatzen?

– Ene bizitza geldotasunez itzaltzen ari dela ikusteak sortarazten didan minak erauzitako hegats bakoitza birjostearen ausardia.

Zuk, ahanzturaren bide haizetsuetan barrena noraezean ibiltzen ikusi zenituen hitz galduen kanela zein isiltasunak malenkoniatsu bihurturiko doinua bezalaxe ahuldu ziren ahotsen oihartzunen gozotasunaz eginiko habia daukazuna: zer dela eta utzi diozu abesteari?

– Antzinako hitz hotsak ez dituelako inork entzuten.

Iraganeko distiraren urre eta odoletan dagoen zoritxarreko herri honen karmin koloreko lumajea duzun hegazti hori: nola duzu izena?

– Euskara esaten naute;  
Fenix-a izaterik izango banu, sikiera...  
Nire errautsetatik berpizteko akaso...